

AZTERKETAKO APUNTEAK

1. EUROPAKO HIRIAK

- Europako hiru metropoli nagusi: Londres, Paris eta Mosku
- Europa osorik populatuta → bai hiri txikiekin (asko), bai handiekin ere.
- Europako hirigintza prozesua garrantzitsua da mundu mailan, kolonialismoaren bitartez haien hiri ereduak zabaldu baitute.
- Hiri historiko gutxi ditugu eta hauen hondarrak soilik gelditzen dira. Halaber, erdi aroko hiri gutxi gelditzen dira; hauek, izurrite beltzarekin populazioaren hazkundera ez zen eman, eta beraz, hiriak ez ziren berriak. Beraz Europako hiri gehienak nahiko berriak dira, Italia dugu zaharrena.

HIRIEN BILAKAERA HISTORIKOA:

EREDU MOTAK → Hirien sorrerak eragina izan du gaur egunera arte, egitura zein oinplanoan, hauek dira historian zehar emandako hiri ereduak:

- Erromatarra: Bi ardatz zituzten cardo eta decumanus, eta eraikinak militar denda izango balira bezela antolatzen ziren, eredu hau hiri batzuetan oraindik nabaritzen da, esaterako Zaragozan.
- Arabiarrak: Kale estuak eta formarik gabekoak, patioak izan ohi dituzte gehienetan, Andaluzian eragin handia, baina gaur egun eragina ez da oso nabaria, Sarajebo agian.
- Errenazimendua: Eraikinak multzokatuak daude, eta kasu honetan erromatar ereduak handituko dute etxeari garrantzi gehiago emanez, Ferrara (Italia) dugu eredu.
- Erdi Aroko hiri gotikoa: Europako hiri gehienetan, Italia kenduta, erdi aroko hiri nagusitzen da, batez ere alde zaharretan, Gasteiz, Bilbo Donosti, Durango, Bergara, Tolosa, Ordizia... Erreinuak estabilizatzen hasten dira; hauen seguritatea eta komertzioa hazten direnez, hiriak hazten dira. Hiriaren goialdean eraikin esanguratsuak kokatuko dira eta dena muino batetik hasiko da, hau gero handituko delarik. Esaterako Gasteiz Napartarrek sortu zuten, lautadako muino batean eraikiz. Goialdean katedralak jauregia zeuden eta horien inguruko kaleetan (kutxi, zapa..) gremioak zeuden. Orografia jarraituz hiriak sortu zuten.

HISTORIAREN ERAGINA

Hiri historikoak ez dira handiak, gutxi daude eta gehienak italian daude (Florenzia, Venecia). Daudenak garapen gutxi izan dute; horregatik mantendu dira garaiko itxurarekin.

Alde zaharrak:

Garrantzitsuak dira egungo hiri planoan eragiten baitute; hala ere, alde zahar gehienak Erdi Arokoak dira eta ez zaharragoak.

Jatorri ezberdinekoak dira, baina hiri gotikoa da nagusi.

Erdi Aroko hiriak →

- Planoa: bi ardatz nagusi paraleloan
- Ezaguarriak: Egitura defentsiboa, kokapen estrategikoa, erliebera egokituak, elementu nobleak (jauregiak, katedralak...) leku altuenetan, gremioz banatuta... Gasteiz adibide ona.

XIX. MENDEAN ALDE ZAHARRAREN BERRIKUNTZA-ELEMENTU HISTORIKOEN DESAGERPENA (ELEMENTU HISTORIKOAK)

Arrazoi ezbernengatik lehenaldi historikoa desagertzen da garai honetatik aurrera:

- Erdi aroko etxeetan osasun/higiene arazoak → Deserosoak
- Hiri espekulatiboak: populazioa hazten da, ez dira ausartzen harresiak botatzera; beraz, hazkundera harresi barruan.
- Alde zaharreko eraikuntzak bota eta altueran eraikitzen hasten dira.
- Hiri gehienek prozesu berdina jasan: Paris, Londres, Bartzelona, Lisboa, Bilbo, Iruña, Baiona...Gasteiz salbuespenena (bere egitura tradizionala mantentzen du).
- Botatzen ez diren eraikinak → elementu nobleenak, katedralak, gazteluak... Elementu historiko hauek hiriaren ikurra bihurtuko dira

ERAZTUNEZ OSATUTAKO HIRIAK:

XIX. MENDEAREN AZKEN LAURDENEAN ETA XX. MENDEAREN LEHENDABIZIKO LAURDENEAN, HIRI MODERNOAREN HASIERA

- Populazioaren hazkunde handia eta alde zaharren berrikuntza
- II. Industrializazioa eta populazioaren hazkundera, eta klase urbano berriak sortu:
 - Burgesiak zabalgunekak burutzen ditu →
 - Dirudun jendea bertan bizi: batzuetan hurbiltasunean txaletak
 - Planifikazio orokorra da: kale linealak, etxe multzo laukitsuak, parkeak
 - Hiri etorbide nagusiak egingo dira. Hiri zenbat eta garrantzitsuagoa gero eta zabalpen handiagoa
 - Hiri errealitate berriak garatu → Langileen auzoak (banaketa soziala dutenak), trenbidea, lantegiak...

XX. ERDIALDEAN EGUNGO HIRIAREN OSAKETA

- 50-60. hamarkadako boom demografikoa eta nekazal exodoa → egungo hiriaren zabalpen nagusia garai honetan.
 - Lehenengo eraztuna: hiri densoa funtsio nagusi batekin: etxebizitzarena.
 - Periferia bigarren eraztun bezala, jardueren nahasketa dago bertan.
- Beste hiri ezberdintasunak badaude: komertzioa, populazioaren adina eta dinamismoa, prezioa nagusi
- Garai honetako hiri osatzeko aurreko hiriaren hutsuenak beteko dira orain eta hiri oso bat azalduko zaigu, eraiki gabeko gunerik gabe.
 - Europako hirien zabalaren $\frac{3}{4}$ edo gehiago garai honetakoak dira → egoera hau Europa osoan emango da, baita herrialde komunistetan ere.
- Baina 60. hamarkadako hazkundeari irtenbidea emateko erabaki ezberdinak hartzen dira Europako zonalde bakoitzaren arabera, eta hiri eredu ezberdinak sortzen dira.

* Bilboren berezitasuna: 70. hamarkadan biztanleria izugarri hazi zen (ez da oso ohikoa) Bilboko Alde Zaharra: Erdi Arokoa da, hain zuzen, Gotikoa XII-XIII mendeen bitartean. XIX. mendean harresiak botatzea erabaki zuten, eta 50. hamarkadan etengabeko hazkundera gertatu zen, jendea lana bila etortzen zelako (otxarkoaga sortzen da).

Bilbok 3 elementu ditu:

1. Zein da Bilboren baldintza berezia? → hazkunde azkarra izango da

ERREALITATE BERRIAK HIRI BERRIAN

Hiri nagusiaren hazkundearen ondorioz hiri eredu berriak sortzen dira Europan. Bi motatakoak azpimarratzen ditugu jarraian

- **Hiri Sateliteak** → Gehien bat hazkunde azkarreko ereduak lotuta sortzen dira eta bereziki mediterraneo aldean. Arrazoi espekulatiboak medio kasu gehienetan (etxebizitza merkeagoa) hiri nagusi baten alboan hiri ertañak edo txikiak sortzen dira. Normalean 20,000-100,000 biztanle izaten dituzte, oso azkar hazten dira eta oinarritzko zerbitzuen gabezia nabaria da. Planifikazioa eta eraikuntzen kalitatea ere horren adibidea dira. Hiri hauek 60-70. hamarkadan garatzen dira. Gehienbat Europa hegoaldean ematen dira, metropoliaren hazkundera dela eta. Madrilen→Alcorcon, Leganes, Getafe...
- **Hiri Planifikatuak:** Europa erdialdetik datorkigun ereduak da, batez ere Ingalaterran. Berezi 80, hamarkaditik aurrera garatzen den konzeptua da eta hiri metrópoli handi baten hazkundera mugatzeko erabiltzen dira eta

bertan galdutako bizi kalitatea errekuaratzeko. Hiri hauek metropoliarekin ondo komunikatuak daude, 20-30 kmko distantzia batean eraikitzen dira, oinarrizko zerbitzuen planifikazioa aurretik ematen da, beste horrenbeste etxe eredua (indibiduala) eta hiriaren hazkundea... Eredua hau Londresen izan da oso erabilia eta handik zabaldu da Amsterdanera, Suezia, eta baita ere Mediterraneoko zenbait hirietara (Tres Cantos Madrilen adibidez) Metropoliaren inguruan sortzen dire hiri berriak dira, baina planifikatuak, hau da, nahita sortzen dira (Londresen sortutako terminoa; izan ere, Londresek jende gehiago bereganatzeko aukera dauka). Planifikatu hazkuande 20 30 kilometrorra, planifikatzen dira bizi kalitate gehiago lortu ahal izateko.

- 1)- Metropoliarekin komunikazioa zuzena eta publikoa izatea, hau da, komunikazioa azkarra, metropoliaren zentrorra eramaten gaituena.
- 2)- Zentro bat, dendekin, parkeekin, eta inguruan etxebizitzak egiten dira.
- 3)- Bilatzen da lantegiak hiritik gertu egotea.

Londres bere inguruan zinturoi berdea izeneko gunea dauka, nekazal guneak. Gerra sortuz gero, 12 milioi pertsona asetzeko prestatuta dago. Hiri berriak: Harlow...

EUROPAKO MEGAPOLISA → HOLLAND

Hiri bat besteari pegatuta azaltzen denean, hau da, erbateko gune urbanoa daukagunean, MEGAPOLISA sortzen da.

- Munduko megapolis handienak: Nueva York, Boston, Wasington...
- Europako megalopolis handienak: Randstadt (Amsterdam, Rotherdam, La Haya, Leyden, Harlem, Utrech, Gouda, Hilversun.)
- 10 Milioi biztanle 30*30kmko gune batean
- Hiri guztiak historikoak dira.
- Hiri eta populazioaz gain portu, aeroportu, epaiketak, unibertsitate, gune turistikoak, nekazal guneak.. nazioarteko mailakoak eta nazioarteko funtzioak betetzen dituztenak.
- Nola liteke horrenbeste iharduerak horrelako gune txiki batean eta gainera itotasunaren sentimendua inoiz ez izan?
 - Funtzioak hirien artean banatuz. Hiria funtzio batean espezializatzen da.
 - Rotherdam: portu funtzioa
 - Amsterdam: administrazioa eta turismoa (Europako aireportu nagusia)
 - Utrech: garraioa
 - La haya: funtzio Internazionalak, epaitegi handienak
 - Leyden: unibertsitate handia
 - Gouda: Nekazari funtzioak
 - Garraio azpiegitura publiko azkarra eta maiztasun handikoa. Garraio eredu ezberdinak batuz gune zehatz batzuetan
 - Baina lurralde antolamendu politika zorrotzak dituzte. Erabilera bakoitzak bere lekua eduki behar du, ez da metro bat eraikiko benetako beharra ez badago (espekulazio eza, etxebizitzetan adibidez). (Por ejemplo, en donosti

el 15% de las etxebizitzak están vacías, y aun así se siguen construyendo casas, pero en este caso no pasa eso, si no se llenan las casas no construyen más, resumiendo, si es extremadamente necesario se construye sino ajo y agua).

- Amsterdanen kotxez sartzea debekatuta dago, dena garraio publikoa erabiliz egiten da.

Europort: munduko porturik nagusia, Shangaikoarekin batera

EGUNGO ERABAKI ASKO BERDINTSUAK IZANGO DIRA BAINA EREDU EZBERDINETA:

- Gune industrial zaharren erreperaketa, etxebizitza eta ekipamenduetarako balio dute, bereziki portuetak. Burgesia berriaren zonaldeak izango dira (Bartzelona, Amsterdam, Oslo, Liverpool, Bilbo...)
- Hiri gehienak portua dute, industrializazioarekin garatuz joan dira, hori dela eta, industriarekin eta industriarik gabe funtzionatzen dituzten portuak ditugu.
- Hiri erdialdearen peatonalizazioa
 - Kotxeak murriztu eta jendea kaleetan lasai egoten utzi.
- Parke disuasoriak hiri kanpoaldean.
- Garraio publikoaren aldeko apostua:
 - Hiri guztien apostu nagusia tranbia da.
 - Tren eta trenbidea kasu guztietan
 - Metroa 1 milloi biztanletik gorako hirietan
 - Autobusa → auzo barruko komunikaziorako
- Eraikuntza berriak, denak garajeekin
- Hiriak umeak jolasteko kontzeptua bultzatzea, hau da, zentro peatonalizatuak egitea eta ondorioz errepiderik ez egotea

HIRI EREDU EZBERDINAK

- Lau eredu nagusi
 - Mediterranearra → Atenas, Napoles, Genova, Niza, Marsella, Lisboa, Bilbo (Bologna, Erroma eta Florentzia ez), Iberia
 - Erdialdekoa → Frantzia, Alemania, Holanda, Belgika, Dinamarka, Austria, Suitza.
 - Britanikoa
 - Ekialdekoa / Komunista (Sobietarrak)
- Garrantzi gutxiagoko ereduak
 - Industrialia → Liverpool, Birmingham, Manchester, Bilbao (baina ere mediterranearra)
 - Historikoa → Italian batez ere.
 - Nordikoa → Oso berezia. Taigako eremuan.
 - Hiri berriak →

EREDU MEDITERRANEARRA: Bartzelona, Bilbo, Donosti, Atenas, Milan, Palermo...

- 60. garren hamarkadan hazkunde izugarria eta hazkarra
- Inguruko lurraldeak hustu egiten dira eta dena hiri batean kontzentratzen da
 - Grezian adbz.
- Hiriak ezin du hain hazkunde azkarra kontrolatu. Ondorioak:
 - Planifikazio eza. Ardatz nagusi batzuk markatzen dira eta hazkundea ardatz horiek jarraitzen dute (Paseo de la Castellana)
 - Zonalde berderik eta aisirako zonalderik ez.
 - Zerbitzu publiko falta: garraiorik eza, saneamendurik eza, ur hornidura arazoak, errepide egoki eza...→ Vallecas, Lasarte...
 - Zenbait kasuetan hirigintza eskasaren ondorioz arazoak: hiri sateliteak, kalitate txarreko materialak...

80. hamarkaditik aurrera egoera bideratzen hasten da (Madrilgo biztanleria Tajoko ibaitik edan egiten du. Hasiera batean Madrilen soilik milioi bat pertsona bizi ziren, baina azkenengo urteetan biztanleria gora egin du (4 milioi) eta ez zegoen modurik hainbeste pertsonari ura emateko, beraz 80. hamarkadan eraiki zuten enbaltsea)

- Garraio eredu publikoa, metroa, trena eta autobusa bereziki
- Saneamendu sarea egokitu: depuradorak
- Ur hornidura ekipamendu berriak: enbalseak
- Zerbitzu publikoak: anbulategik, eskolak...
- Azken urteetan erdialdeen peatonalizazioa, zenbait zonalde degradatuen errekuperaketa aisirako: ibaien ertzak, kostak...
- Hala eta guztiz ere kontzentrazioaren arazoa ez da soluzionatu.

Tesalonika: blokeak dira eraikin gehienak, altura bost sei pisukoak (mediterraneoaren eredu tipikoa jarraituz→ itsaso ertzeraino eraikitzen)

Atenas: hiri poblatua, zonalde berderik gabea, oso azkar hasi den hiri bat da, parke gutxi, eraikin bloke asko...

Palermo:

Marsella: hazkunde azkarra, eraikuntzan deskontrol handia, eraikin historikoak baditu

Madrid: Musulmanen fortifikazio batetik sortu, Tajo inguruan; Felipe II.a Madrilen jarri zuen hiriburua, beste hiri batzuk garrantzitsuak izan arren (Toledo, Segovia...), Retiro parkea Alfontso II.: Versailles imitatu nahian egin; Franco garaian Madrilek milioi bat biztanle zituen, gero 5 milioi pertsonara igo

Malaga: Garaiko elementuak ditu, blokeak...

ERDIALDEKO EREDUA: Copenhagen, Bruselas, Estocolmo, Amsterdam...

- 60. hamarkadan hazkunde handia baina kontrolatua
- Inguruko lurraldeak ez dira hustutzen eta hiri eta bere inguruan kontzentratzen da hazkundea.
 - Nekazal eremuan bizitzeko gustua
 - Etxe indibidualetan bizitzeko gustua

- Hiriak errazago kontrolatzen du bere hazkundera. Ondorioak:
 - Hiriak ez dute horrenbesteko altuerarik
 - Zentroak bulego funtzioa dute, gende gutxi bizi da eta altura guxtikoak dira (4-5 planta)
 - Zonalde berderik eta aisirako zonalde aldeko gustoak: parke zabalen ohitura
 - Zerbitzu publiko antolatuak: garraio publikoa, metroa, tranbia...
 - Zenbait kasuetan hiriaren hazkundera kontrolatzeko hiri berriak planifikatzen dira.

Hiri eredu honek arazoak ditu hala ere

- Periferia oso zabala dute eta mobilitatea egunerokoa da: etxebizitza, komertzioa eta lantokia oso urruti gelditzen dira. Kotxea ezinbestekoa da
- Garraio eredu publikoa, metroa, trena eta autobusa oso garatuta duten arren arazoak dituzte.
- Periferiaren garraio sarea oso handia da eta ataskoak ere
- Hamarkadak dira erdialdeen erabateko peatonalizazioa burutu dutela.
- Zenbait zonalde degradatuen erreperaketa bizitzeko eta ekipamendu berriak bertan kokatzeko, bereziki portuak

BRITAINIAR EREDUA

- Europa erdialdeko ereduaren jarraipena da. Ezaugarri berdinak dira baina salbuespen batekin
 - etxe indibidualetan bizitzeko gustoa: bi plantako eredu da, sarrera eta atzekaldeko patio edo baratzarekin
- Horrek Erdialdeko ereduarekiko zenbait ezberdintasunak markatzen ditu:
 - Zentroetan askotan altura txikiko etxebizitzak aurkitzen ditugu (hiri handienetako zentroak, Londres, ez da eredu hau ematen)
 - Etxebizitza indibidualen aldeko apostua erabateko da eta periferiak etengabe luzatzen dira
 - Hirigintzaren berdintasuna nagusi da kasu guztietan
 - Garri pribatuaren beharra oraindik handiago
 - Beste ezaugarri aurreko ereduaren antzekoak dira: parkeen gustoa, garraio publikoaren aldeko apostua, erdiguneen peatonalizazioa eta parking disuasorioak... baita arazoak ere garraioaren ondorioz, bereziki periferian

EKIALDEKO EREDU KOMUNISTA

- 60. garren hamarkadan hazkunde handia baina kontrolatuta
- Eredu honek ezaugarri nagusi batzuk ditu. Etxebizitzaren inguruan honako hauek azpimarratu daitezke
 - Hazkunde planifikatuta
 - Etxebizitzak publikoak dira
 - Etxe multzo handien aldeko apostua
 - Biztanle bakoitzak behar dituen metroak eduki behar ditu
 - Etxebizitzak publikoak dira
 - Etxebizitzaren itxura ez da hain garrantzitsua, berdintasuna ordea bai: erlauntza blokeak

- Etxebizitzaren bloke barruan pertsonak bizitzeko behar dituen zerbitzuak eduki behar ditu, normalean beheko solairuan: dendak, ileapandegia..
- Etxebizitzaren hurbiltasunean populazioa behar dituen beste gune nagusiak egon behar dute:
 - Etxebizitzaren inguruan parke edo gune berdeak: etxe multzoa-gune berdea batera
 - Lantokiak ere hurbil egon behar dute, populazioaren etengabeko mobilizazioa gutxitzeko intentzioarekin: hurbiltasunean gune industrialak egotea nahiko arrunta da, hiria industrialak bada, Mosku kasu
 - Garraio publikoaren garrantzia, metro, tranbia eta autobus publikoak
- Eraikuntza publikoaren garrantzia (guztiona dena kalitatezkoa izan behar du):
 - Etorbide zabalak
 - Kalitate handiko eraikuntza publikoak: Unibertsitatea, opera, liburutegia, parlamentoa, metroaren estazioak, polideportiboak, plazak..
 - Hornikuntza sistemak oso ona, kalefazioa bereziki

Hiri eredu honek arazoak ditu hala ere

- Etxebizitzen kanpo itxura ez da oso polita: erlauntza itxura
- Industrializazioa eta etxebizitza hurbiltasunean egotea kutxadura arazoak sortzen ditu kasu askotan
- Enpresak kutxadura ekiditeko ez daude ondo prestatuak
- Eredu kapitalistaren aldaketarekin hiri barruko mobilitatea handitu egin da.
 - Zentroak sortu dira eta zerbitzuak eta enpresak bertan kontzentratu dira
 - Horrek, hiri barruko mobilitatea bultzatu egin du eta bulevar handietan kotxe kontzentrazio handia eman da

HIRI HISTORIKOAREN EREDUA

Europar hiri historiko gutxi ditugu. Eragin nagusia Italiako zenbait eremuetan, bereziki Emilia Romagna Eskualden, Po bailaran

- Erromatar hiriak dira osaketaz. Bi ardatzetan egituratu dira: Cardus eta decumanus, bata horizontala eta bestea bertikala
- Ondorengo zabalpen historikoa antzekoa izan dute: hiri estatuak izan dira eta erdi aroan eta erenazimientuaren eraikuntza nobleak mantentzen dituzte, askotan alde zaharrak ere. Ondorengo hazkundeak, XX. Mendearen erdialde arte, osatu dute alde zaharren estilo egun ia bere osotasunean hiri historikoak kontsideratzeko.
- Bata bestearekiko distantzi berdintsua mantentzen dute. Jatorriz erromatarren kanpamenduak izan dira eta bata bestearekiko distantzia berdintsuan daude, 80 km. Inguru

60. hamarkadako hiri hazkundeak izan dute baina elementu historikoa errespetatuz eta kardu- decumanus ardatzak mantenduz. Kasu gehienetan nabaria da duten patrimonio historikoa, Bologna azpimarratuz.

- Beti ez dira bi ardatz ondo mantentzen baina gutxienez bat mantentzen da ondo eta horrek alde zaharra eta hiri modernoa egituratzen du

- Hazkunde berriak, errepide berriak kasu, kanpoaldetik burutu dira eta ardatz erromatarra ondorengo hazkundera bideratzen du egun.
- Europako hiri aberatzenetarikoa dira egun, Europako distrito teknologiko nagusia osatzen dute eta sarean lan egiteko gaitasun handia dute.
- Hiri ertainak dira (150,000-250,000 biztanle bitarte): Modena, Parma, Cremona, Ferrara.. Bologna da guzti hauen artean funtzio internazionalak (aerportua) bereganatzen dituen, eta zerbait handiago da. 500,000 biztanle

BESTE SALBUESPEN BATZUK:

INDUSTRIALAK:

1. Industrializazioarekin sortutako hiriak:
 - Lehendabiziko industrializazioarekin hiri asko sortu ziren Europan. Hiri berriak ziren, nekazar eremuan sortu ziren, lehengaien eta, bereziki, ibai eta erreken inguruan
 - XVIII mendearen bukaeran sortu ziren eta industrializazio garai guztietan joan dira enpresa eta auzo berriak osatzen gaur egun arte
 - Hiri hauek planifikaziorik gabe egin dira. XVIII, XIX eta XX. Erdialde arte eredu berdintsua azaltzen dute, hau da, enpresa berri bat eta bere ondoan lantegi horretan lan egiten zuten langileen auzo bat
 - Emaita:
 - konexiorik gabeko gunek sortzen dira non industria eta bizilekuak antolaketa handirik gabe nahasi egiten diren
 - Egoera ezberdineko auzo eta gunek industrialak sortzen dira, batzuk itxi egiten direlako beste batzuk ondo funtzionatzen dutelako egun, batzuk birmoldatu dira
 - Nahasketa da nagusi: etxebizitzak, industri gunek egoera ezberdinetan, azpiegitura berriak eta zaharrak...
 - Ez dago erdigune garbi bat, non iharduera nagusinak kontzentratzen duenik.
 - 90. garren hamarkaditik aurrera birmoldaketa handia jasotzen ari diren eremuak dira
- Helburu ezberdinak:
 - Zentralizazio lortu: gunek zentrala indartu, funtzio tertziarioak leku horretan zentratuz: Kongreso jauregia, zentro komertzialak, garraio estazioak...
 - Zerbait eremuen birmoldaketa, bereziki ur laminen ondoan, etxebizitza berriak egiteko
 - Funtzio tertziarioak indartu, aerportuak, museoak, emanaldi gunek eta kongreso gunek antolatuz
- Emaita:
 - Positiboak izan dira eta zentroak nabarmentzen hasten dira

- Hala eta guztiz ere erabilera nahasketa handia da egun
- Hirigintza kalitate eskasa nabaria da kasu askotan
- Leku askotan daude era honetako hiriak; Dormunt Alemanian, Lieja Belgikan baina bereziki lehendabiziko industralizazioa sortu zen lekuetan, Inglaterran: Liverpool, Manchester, Leeds, Birmingham...

XX. MENDEAREN BUKAERAN ETA XXI. MENDEAN SORTUTAKO HIRI BERRIAK

- Lehendabizi Europako Iparraldeko herrietan sortu ziren eta poliki poliki hegoaldeko herrialdeetara zabaltzen ari dira
- Londres ingurua izan daiteke honen abiapuntua baina Suedia eta Holandan tradizio handia dute
- Hiri hauen helburua metropoliaren erabateko hazkundea mugatzea izango litzateke
- Eraitza:
 - Metropolitik hurbil baina batera urrun, berarekin fisikoki ez batzeko +- 30 km
 - Hiri planifikatuak dira osorik: negozio zentroa, konpra zentroa, zerbitzu publikoekin hornitutak: eskokal, anbulategiak...
 - Erabilera bakoitzak bere lekua du: industria, zerbitzuak, residentziak, aisira, zonalde berdeak
 - Metropoliarekin garraio konexioa oso ona dute, trenaren bitartez bereziki
 - Bide azpiegitura oso ona, inguruko sare nagusiarekin konexio onarekin. Lan gunetik urbiltzeko helburua
 - Metropolian egun lortu ezin daiteken hiri kalitatea hemen bilatzen da.

IPARRALDEKO EREDUA

Finlandia eta Suedia erdialde eta Iparraldean emango litzateke (Laponia)

- Taigako klimarekin koinziditzen duen zonaldea da. 8 hilabete 0 azpitik
- Ez dago hiri handirik: hiri gehienak barrualdeko lehen gaiak ateratzeko zuzendutak daude
- Hiri eredia Oulu (Finlandia): 199.526 biztanle
- Etxebizitza eredian nahazketa baina eredu komunistaren aldea egiten dute gehien bat. Etxemultzoa, kalefazio hornikuntza ona
- Elurretan bizitzeko azpiegiturak prestatutak; kalefazio erudu zentrala hiri guztirako, errepide zabalak eta taludeak prestatuak
- Portuen garrantzia. Iharduera bertan konzentratuta
- Zerbitzu publiko oso garatuak
- Eredua honetan, hiri handiagoak direnean, Canadian adibidez, bizitza soziala lur azpiko solairuetan egiten da (dendak, tabernak...). Ez da kasua.

2. LANDA GUNEAK

Europako nekazaritza

- 60. Hamarkadaren hasiera: Europa ez da gai bere buruelikatzeko eta populazioaren erdia nekazaria da
- Erromako trataduan EBk nekazaritzaren ardura bere gainhartzen du.
- Helburu bikoitza:
 - Europako nekazariak populazio guztia elikatzeko adinaekoiztu behar dute
 - Horretarako gende gutxi dedikatu behar da nekazallanetara.
- Zer egiten du EBk
 - Nekazaritza bere ardurapean. Hasieran EBk aurrekontuguztien % 70 zuzentzen du helburu honetara. Egun % 40
 - Nekazal Batasun Politika (PAC) diseñatzen du. Hiru ardatz martzan
- Nekazal ustiategiak espezializatu behar dira ekoizpen batean.
- Nekazal laboreak mekanizatu behar dira
- Elikagai industria garatu eta partaide egin behar da
- Zein da PACen estrategia:
 - Ustiategia iharduera batean espezializatu.
 - Mekanizazioa lagundu + Formazioa+Lurren erosketa+...
 - Prezioak ziurtatu elikagai industriaren bitartez
 - Ustiategiak handitu: ekoizpenean, lurretan, abereburuetan... . Esne behiak 40 ha. behar dituzte, zerealak 100 ha.
- Bere helburuak lortzen ditu?
 - 80. hamarkadaren hasieran Europak EEBB aurretikekoizpenean. Munduko ekoizle nagusia bihurtzen da
 - Hainbesteko da hazkundera zenbait ekoizpenak mugatubehar dituela: soberakinak ditu esneetan, zerealetan, ardogintzan...
 - Ustiategien neurria handitu egiten da: 5 Ha tik 20ra pasa dira
 - Eta gainera ekoizpen hazkundera gende gutxi erabiliz egitenda. Egun herrialde aurreratuenak populazioaren % 3 edogutxigo nekazaria da.
- PACen arazoak: prozesua arlo askotan mingarria da
 - Nekazal guneak hustu egiten dira: nekazal eremu gehienek populazioaren bi erenak galdu egiten dute
 - Nekazal iharduera esku gutxitan konzentratzen da, ustiategi konpetitiboak. Eta nekazal eremuan zertaz bizidateke?
 - Ustiategi handi hauek lur onenak erabiltzen dituzte. Lurasko, bereziki mendietan, galdu egiten dira
 - Eskualde askotan nekazariak desagertu egiten dira: ez dirakonpetitiboak
 - Batz besterik, 10 urtero Nekazari erdiek iharduera hustendute
 - Kalitatea askotan kolokan jartzen da industri nekazaritzaren eskakizunen ondorioz: pestizidak, ongarri kimikoak...
 - Birmoldaketa prozesua ez da inoiz bukatzen: inkorporatzen diren herri berriak nekazariak dira eta bere birmoldaketa egin behar dute (Mediterraneanarrak,

Ekialdekoak...). Mekanizatu, neurriak handitu, zaharrak jubilatu, gazteakformatu....

- 2000. urtea Nekazal Politikaren birmoldaketa erraldoia ematen da. Helburu berriak:
 - Nekazaritzak produktiboa izan behar du
 - Laguntzak ere produktuaren gutxiengo preziora emango dira. Hau nekazariak ez dute sumatuko, elikagai industriaren bitartez egiten jarraituko dute
 - (Arlo hauetan ez dago aldaketarik)
 - Nekazal lurak erabili behar dira. Laguntza publikoak erabiltzen diren lurren arabera emango dira (nekazarien %70 errentak laguntzak dira)
 - Nekazaritzak ez du kutsatu behar. Purinak eta pestiziden kopurua mugatzen eta kontrolatzen hasten dira
 - Labelak, jatorrizko izendapenak, nekazaritzakekologika... onartu egingo da baina Europak ez ditu hauek bereziki bultzatuko
 - Landa Garapena bultzatzen hasiko da: landa turismoa bereziki
- Egungo egoera:
 - Nekazaritzaren espezializazioa eta joera nabarmena, industrializazioaren filosofia, gero eta gehiago eta gero eta merkeagoa
 - 10 urteko nekazari erdiak ditugu. Txikiak ezin dute bizi. Baserriaren desagertzea horrek adibidea
 - Utzi-espezializatu egoera hau orokorra da, herrialde guztietan ematen da baina zenbait lekuetan aurreratuago dago beste lekuetan baino. Eredu guztietan egon dira ustategien abandonoa
 - Zonalde ezberdinen espezializazio produktiboa uka ezinada. Zonaldeak, konpetitzeko, dituzten abantai naturalak edo sozialak aprobetxatu behar dute: Eguzkia, Euria, baita jakinduria eta urteko espezializazioa
 - Ondorio nabarmena. Eskualde espezializazioa bai baina inguru askotan nekazaritzaren desagertzea.

Zentro-periferia ereduak

- Europako ekonomia familiarra da baina zonaldeen artean ezberdintasun handiak daude
- Europak badu zentro bat: Holanda izango litzateke honen zentroa. Nekazal formazioa erabatekoa, iharduerak intentsiboak, ustategiekin pako eskulana kontratatzen dute, ondo mekanizatuak, ekoizpenak elikagai industriaren bitartez ondo bideratuak, unibertsitatearekin eta ikerkuntza zentroekin harreman zuzena... Hau dena egiten da eskulan gutxi erabiliz, normalean %2 azpitik. Hau errentetan islatzen da eta datu positiboak zonalde hauek emango lituzke
- Europako periferia: Hemendik urruntzen garen arabera errentak jetsiegiten dira eta nekazari batek lau aldiz errenta baxuago izatea ohikoa. Periferia hau España hegoaldean, Irlanda Mendebaldean, Eskozialparraldean, Italia hegoaldean, Grezian eta egun bereziki Balkan eta Karpatoko eskualdeetan

- Hala eta guztiz ere eredu honen barruan espezializazio handikoeskualdeetan izango litzateke salbuespena. Hegoaldean egondaekoizpen eta komertzializazio mailan Iparraldeko eredu-konstituzioekin konpetitzeko eta erretan altuagoak azaltzeko gaitasuna dute

Espezializazio guneak

- Zerealetan espezializatutako guneak
 - Espaniako meseta, Frantzia Lautada, Alemaniako Erdialdetik Errusiara, Dinamarkako Jutlandia, Suedia hegoaldea, Erresuma Batuko Ekialdea
 - Industria eta forrajerako landareak bereziki (neguko usta eta udako usta): neguan garia eta garagarra eta udan artoabereziki. Lekuaren arabera eta udan, Europa hegoaldean erremolatxa eta girasola eta iparraldean soja eta erremolatxa (hezetasun gehiago behar da)
 - Ustiategi handiak dira, 100 Ha baino gehiago kasu askotan, lurgehienak oso emankorrak, lauak eta mekanizagarriak
 - Laboreak erabat mekanizatuak daude, makinarian inbertsio handiak izanez
 - Inbertsioak burutu dituzten ustiategiak egoera egonkorra eta egokia azaltzen dute, baina burutu ez dituztenak lurra beste eneskutan husten dute
 - Ekoizpena, Europako laguntzen menpe dago, lurra erabiltezagatik laguntzak ematen dutelako eta finkatzen den prezioaren menpe, bereziki udakoa
 - Etorkizuna: laguntzak ustiategi txikiak baztertzeko dituzten arabera kontzentrazioa nagusituko da: makinaria talde handiak
 - Sektorearen Egoera: egonkortze prozesua
- Abeltzaintan espezializatutakoak
 - Esne Behiak
 - Atlantiar aldeko zonaldeak dira bereziki Kantauriko kostak, Normandia, Belgika Iparraldeak, Holanda, Bretonia Handiaren medebaldeak, Irlanda, Alpeetako eskualdeak (Suitza, Austria eta Alemania Alpetarra), Sudetako eskualdeak, Polonia Hegoaldean eta Frantzia erdialdeko maziziko eskualdeak
 - Belarrak eta forrajea klima euritsua eta uda epela behar izaten du
 - Mekanizazio handiko sektorea da, genetikan inbertsio handiak egiten dituen eta ekoizpen gehiketa izugarria lortu duena: Behiko eta urteko 3,000 litrotik 15,000 litroa pasatzeko gaitasuna izan du
 - Ustiategi asko ezin izan dute inbertsio ritmo hau jarraitu eta desagertzeko prozesuan aurkitzen dira egun
 - Hemen, eskualde irabazleak ditugu, bereziki Holandan eta Belgikan, ekoizpen eredu aurreratuenak eta elikagai industriarekin harreman oso zuzena: gazta eta gurinaren elaborazioa. Ingalaterran bestehorrenbeste, salmente zuzenaren inguruan. Beste zonaldeetan birmoldaketa handia eman da; kontzentrazioa edo/eta desagertzea
 - Mendi zonaldeak eta Kantauriko eskualdeak dira gehien pairatu dutenak eta abandonoa nagusitzen ari da
 - Sektorearen egoera: birmoldatze prozesua
 - Artzaintza (ardi eta ahuntzak)

- Mediterraneoko eta hegoaldeko mendi sistemarekin lotutako eskualdeak dira; Grezia, Apeninoak, Sizilia, Cerdeña, Corcega, Pirinekoak, Espainiako hego meseta, Karpato hegoaldean, bereziki Transilbanian eta Balkan eta Dinariko aldeko herrialdeak: Croacia, Eslovenia, Montenegro, Bosnia, Kosovo, Bulgaria...
- Eredu guztien artean tradizionalena da, aranak eta mendiaren arteko transumanzia egiten duena (neguak bailarako belardiak eta udan mendialdekoak). Mendiak ez dauden kasuetan larre moduan eremuak aprobetxatzen dira (Greziako irlak)
- Hobekuntzak burutu ditu baina mekanizazio maila eta aurrerapen maila besteengatik oso urruti dago. Gazta du bere ekoizpen nagusia eta jatorrizko izendapena eta kalitatearen eta ustiatze sistemaren eredu bere laguntza nagusia
- Egoera kazkarrean dauden eskualdeak dira. Askotan artzantza dute bide bakarra eta ez da nahiko ekonomiari sustengoa emateko. Europako zonalde txiroenen artean sartzen dira hauek
- Ustiatze sistemaren galera etengabekoa da
- Sektorearen egoera: gainbera prozesua
- Ekoizpen ezberdineko guneak
 - Abeltzaintza eta nekazaritza
 - Tradizioz, ustiatze berdinan ekoizpen mota bat baino gehiagomantendu dituzten eskualdeak dira. Jatorria, bere kabuz elikatze gaitasuna zuen ustiatze batean oinarrituta. Nahiz eta bilakera handia izan orduztik, oraindik iharduera garrantzitsu bat baino gehiago mantentzen dute
 - Bi eratako eskualdeak ditugu:
 - Europa Iparraldean, Renania, Bretaña eta Bretaña Handi zonalde asko, zerealaren ekoizpena abeltzaintzaren ibarekin nahasi egin dute, normalean ustiatze behar zuen elikadura lortzeko. Horrek errentasuna mugatu egin die, espezializatuta egon gabe mekanizatzea zaila delako. Zenbait kasuetan, baten edo bestearen aldeko ekoizpena egin dute, besteetan ezin izan dute konkpetitu eta iharduera usten joan da (Bretaña handia eta Renanian bereziki)
 - Sektorearen egoera: birmoldaketa prozesua
 - Nekazaritza mediterranearra
 - Europa Hegoaldea
 - Zonalde hauetan mediterraneoko ekoizpen hirukia izan da historikoki oinarria (Garia, Ardoa eta Olio). Ustiatze txikiak dira eta hiru ekoizpen mota mantentzea ezinezkoa da
 - Batzutan nekazaritzarekin batera abeltzain extensiboizatzen dute, ahuntzak eta ardiak batez ere
 - Latifundioak ere egoera honen partaide dira, nahiz eta espezializazio guneak izan
 - Formazio txikia, adineko nekazariak, lan tarte asko lanikgabe...
 - Artzantza zonaldeekin batera hauek dira arazo gehien izaten diren birmoldatzeko zonaldeak
 - Sektorearen egoera: gainbera prozesua

- Espezializazio handiko eskualdeak
 - Europan badaude zonalde batzuk, neurriz askoz txikiagoak(arana, eskualdea...) ekoizpen oso konpetitiboak egiteko gaitasuna dutenak
 - Arrazoiak:
 - naturaren baldintza oso egokiak (eguzki ordu asko, udalehorrak baina neguak freskoak, klima epelak urtaroguztietan...)
 - giza ezaugarri egokiak (tradizioz espezializatutako zonaldeak, formakuntza berezikiko gunek, aurrerapen handiko gunek, merkatuaren hurbiltasuna, nazioarteko merkatuaren abiapuntuak...)
 - Kasu gehienetan Europa hegoaldean kokatzen dira: asko dirabaina jarraian bakar batzuk aipatzen ditugu:
 - Baratza gintzan espezializatutako eskualdeak: Valentziako eta Leridako Fruta arbolak, Murziako Baratza, El Egidokobaratz gunea Almerian. Tesalonikako baratza gunek, Huelvako marrubi ekoizpenak... Tarte honetan Canariseko ekoizpen tropikalak gehitu behar dira
 - Arrozaren espezializatuak, bereziki Po bailaran eta Ebroko deltan
 - Lore gintzan espezializatutakoak, bereziki Bordigueran (San Remo-Genovako eskualdea) eta Amsterdamen inguruan
 - Aipamen berezia ardogintzan espezializatutako zonaldeak dira, asko dira, ekoizpen handikoak eta beste errekursoak mobilizatzeko aukera dutenak. Nagusienak: Jerez, Rioja, Cava Españan; Burdeos, Conac, Champaña, Borgoa Frantzian; Rhin Alemanian, Danubioko ardogintza Austria, Serbia eta Hungaria; Oporto Portugalen; Chianti Italian...
 - La eskualde gehienak 50°ko paralelotik behera daude eta klimaberokekin koinziditzen dute
 - Egoera: nekazaritzaren egoera oso ona, zonalde konpetitiboak dira, exportatzaileak, errenta altuak aurkezten dituztenak eta zonalde horietako gainontzeko sektorearen motorea bihurtzen dira. Hazkunde prozesuan dauden sektore eta eskualdeak dira
 - Ardogintza da Europan adibide nagusia
 - Elikagai industria bultzatzen du bodegen bitartez
 - Garraioa bultzatzen du ardo hauen eskakizuna mundu guztira zabaltzen direlako
 - Turismoaren eskualdeak bihurtzen dira zenbait kasuetan produktuaren kalitatea eta lurralde kalitatea bat egiteko: bodegen bisitak, katak...
- Aurreko egoera orokorra bada espezializazio guneen artean badaude salbuespenak, bereziki arrazoi historikoengatik iharduera batean espezializatutako zonaldean
- Adibide nagusia olibondoetan espezializatutako eskualdeak dira, España Hegoaldean bereziki. Olibogintzan espezializatutako garaiko lana besterik ez dute ematen eta errentak oso baxuak dira. Mediterraneoan nekazaritza mixtoaren eta artzantza egoerarekin bat egiten du eta garatzeko alternatiba gutxi ditu
- Gainbera egoera

3. TURISMOA

Hirugarren sektorea → ekoizten ez duen sektorea.

- Sektore honetako sektore garrantzitsuenak: Banaketa zerbitzuak (garraio + komertzio) eta kontsumitzaileentzako zerbitzuak (**turismoa**).

HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERA MOTAK →

Zerbitzuen sektorea oso heterogeneoa da, eta askotariko jarduerak biltzen ditu. Hainbat irizpideren arabera sailka daitezkeela.

Zerbitzua nork kudeatzen duen kontuan hartuta, bi talde:

- Zerbitzu publikoak: Administrazio publikoek ematen dituzte, zergetatik lortutako diru-sarrerekin. Administrazioa (funtzionarioak), defentsa (armadak) eta ordena publikoa (poliziak), osasuna eta hezkuntza
- Zerbitzu pribatuak: enpresa pribatuek ematen dituzte, etekin ekonomiko baten bila. Hemen egongo lirateke gainerako zerbitzuak (garraioa, turismoa, aisia, merkataritza, finantzarioak, etab.).

Hainbat talde bereiz ditzakegu, emandako zerbitzu motaren arabera:

- Gizarte-zerbitzuak: Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna. Hauek dira jarduera horiek: Estatuak kudeatzen ditu gehienbat
- Banaketa-zerbitzuak: Merkataritza, garraioak, komunikazioak, posta
- Kontsumitzailearentzako zerbitzuak: ostalaritza, jatetxeak, aisialdia, kultura, etxeak, etab.
- Enpresentzako zerbitzuak: bankuak, aseguruak, etab.

EUROPAKO TURISMOA →

Ezaugarri orokorrak:

- Mende honetako bigarren erditik egunoraino turismoak jasan dituen aldaketak lehen mailako sektore ekonomiko batean bihurtzen dute.
- Bost ezaugarri azaltzen digute aldaketa hau:
 - Gizarte gehiengoari zabalkuntza: Europar Batasuneko herrialde gehienetan mende erdirako oporraldi garaia erregulatu da eta honen bitartez turismoaren korrante hauen etengabeko zabalpena eman da.

- Beste ezaugarri bat desplazamenduen trinkotasuna da. Oporrak data zehatz eta epe laburrean kontzentratzen dira. Horrela, turismoa gehiengo batetara zabaldu da eta estazionala bihurtu da.
- Irteerak eta itzuliak industrializatutako herriek kontzentratzen dute. Beraiek dira irteera gehienak egiten dituztenak eta, era berdinean, jende gehien jasotzen dituztenak. Horrela, Europa eta Estatu Batuak dira mugimendu gehien dutenak.
- Turismoaren inguruan eman den antolaketa aberastasun iturri bezala kontsideratu behar da: garraioaren garapena, ostatuak, hosteleritza, e.a.

TURISMOAREN GARRANTZIA EUROPAN

- Munduko beste zonaldeetatik etorritakoak Europara gehien bat.
- Europarrak dira turismo gehien egiten dutenak eta gehien bat Europa bertan gelditzen dira
- Herrialde barruko turismoa ere izugarri garrantzitsua da
- Horren ondorioz Frantzia EEBB baino turista gehiago jasotzen ditu

EUROPAN ERAGINA

- Helmuga turistikoen arabera, 2014an, Frantzia izan zen mundu mailako helmuga bisitatuena, 83.7 milioi turistarekin; Espainia, berriz, hirugarren lekuan dago Estatu Batuen atzetik, 65 milioi nazioarteko turistarekin, Italia bosgarren postuan, Alemania zazpigarrenean edo Erresuma Batua zortzigarrenean dira
- 2014an EB bisitatu zuten turisten nazionalitateari dagokionez, Estatu Batuetako, Errusiako, Txinako, Japoniako eta Brasilgo bisitarien hurrenkeraren arabera nabarmendu behar da (Eurostat, 2015)
- Nazioarteko etorrerei dagokionez, emaitza positiboak eta garrantzitsuek gain, EBko turismo-eskaria funtsean barnekoa da. Hala, lurralde horretan erregistratutako gaualdien % 90 EBko biztanleenak izan ziren. EBko herritarren % 15 bakarrik joan zen Batasunetik oporrak igarotzera (Eurostat, 2015). Datu hori lagungarria da EBk turismo-helmuga gisa duen posizio handia nabarmentzeko, eta, beste behin ere, sektoreak Europako ekonomiarentzat duen garrantzia nabarmentzeko

ONDORIOA. TURISMOAREN GARRANTZI EKONOMIKOA

1. Turismoak funtsezko zeregina du, ahalmen ekonomikoa eta enplegua sortzeko ahalmena duelako. 2014an enpresa-ekonomian diharduten hamar enpresatik bat turismo-sektorekoa zen
2. Ostatuko turismo-eskaintza handitzea. Kalkuluen arabera, 2015ean 578.000 establezimendu baino gehixeago zeuden, guztira 31 milioi plaza
3. Nazioarteko turismoaren garrantzi ekonomikoa neurtzeko, kontuan har daiteke Nazioarteko turismoa eta BPGa. EBko turismoa bere BPGaren % 10 da, eta Kroazia edo Malta bezalako herrialdeetan, Bere ekonomiaren « lehen sektorea da»

4. Nazioarteko turismotik 2015ean izandako diru-sarrera handienak Espainian, Frantzia eta Italia.

EUROPAR BATASUNEN TURISMOARI BURUZKO FUNTSEZKO DATU BATZUK

1. Bizileku-herrialdetik kanpoko turismo-pernotazio gehiago. Alemanak eta Britainiarrek egin zituzten gau turistiko gehien atzerrian
2. Europarrentzat Espainia da turismo-helmuga gogokoena. (Beste herrialde batzuetatik etorritakoak)
3. Alemaniako, Erresuma Batuko eta Frantziako herritarrek gastatzen dute gehien bidaiatzen dutenean
4. Europako azpieskualdeen arabera, 1990-2014 aldirako, Mediterraneoko Hegoaldeko Europak izan zuen hazkunderik handiena; ondoren, Mendebaldeko Europan eta Erdialdeko eta Ekialdeko Europan izan ziren. Europa barruan gutxien bisitatzen diren helmugak Ipar Europakoak dira

NORA DOAZ: HERRIALDE GALTZAILEEN GUNE TURISTIKOAK

- Erresuma Batuak Ipar Ameriketako (Estatu Batuak eta Kanada) turistak, frantsesak eta alemanak bisitatzen dituzte. 24 zonalde turistiko aurkitzen ditu eta hauetatik 12 Ingalterran, 9 Eskozian, 3 Galesen eta 1 Ipar Irlandan. Eskozian afluentzia gehien jasotzen dituztenak dira Edimburgo aldera, Glasgow eta Highlands aldera eta bere artxipelagoa (Orkadas, Settland). Ingalterran hegoaldeko kostaldea eta Cornualles eta Galesen dauden lau parke naturalak.
- Alemanian babestutako guneak (Selva Negra, Bavara) gune balnearioak (Badem), ruta kulturalak (Rhin aldeko gazteluak) eta patrimonioa duten hiriak (Maguncia, Colonia, Hamburgo, Bremen, Aussburgo edo Nuremberg. Mendi aldeko zonaldeak ere badituzte "Baviera garaia aldera", Suiza eta Austriarekin mugatuz.
- Belgikan alemaniar, frantsez eta britanikoak dira nagusi eta gehien erakartzen dituztenak hiri historiko flamenkoak dira (Gante, Brujas).
- Holandan turismoaren jatorria berdina da eta Amsterdam dute gune turistiko nagusia.
- Errusian hiriburuak dira bisitatuenak, Mosku eta San Petersburgo, eta hauekin batera Itsaso beltza eta kaspiar itsasoa ere
- Europa Iparraldean Norvegiako Fiordoak dira nazioarteko turistak jasotzen diren zonalde nagusia baino turismo nagusia barne turismoa da.